

## AGERRALDIRAKO IDATZIA

- 15 egun eskas geratzen dira enegarren epaiketa politikoa Auzitegi Nazionalean hasteko. Apirilaren 14ean ezker abertzaleko bost militante politikoren aurka jardungo da Estatuako Fiskaltza, gure ideiak espetxeratu nahirik.
- Independentista izatea ez da ilegala. Ez eta ezkertiarra izatea ere. Nahiz eta hori izan Estatuak, segurtasun indarrek, salbuespen legedi zein auzitegiek eta hainbat botere faktikok urteetan berretsi nahi izan dutena.
- *Domuit vascones* mendeetan Espainiak patentatutako zigilua da. Baina euskaldunak hemen jarraitzen dugu. Gure herriaren alde lanean. Inposizioen eta ideien ehizari ahal dugun moduan aurre egiten.
- Dakizuen moduan orain artean *aztnugaL* kanpainaren atal bat garatu dugu bereziki, torturaren salaketa hots. Torturapean egositako auzia delako gurea. Azken txanpa honetan ordea gatazka politikoa gainditzeko atala jorratu nahi dugu. Epaiketa politikoen bortizkeria etetea exijitzen diogu Estatuari.
- *“Ez gara lehenak, tamalez asko izan dira aurretik. Azkenekoak izatea espero dugu aldiz”*. Hori zen gure pentsamendua atxilotu gintuztenean. Hori jarraitzen du izaten 5 urte eta erdi beranduago. Azken epaiketa politikoa izan dadila gurea. Errepresioaren zurrumbilo eroa gelditu dezala Estatuak. Espainiako Gobernu berria, edozein izanda ere, lotu dadila gatazka konpontzearen lanari.
- 2 dira adostu ditugun ekimenak:
  - ✦ Apirilaren 9an, larunbatarekin, epaiketa politikoen inguruko gogoeta burutuko dugu. Salbuespen legedien eta salbuespen auzitegien inguruko saio bat. Milaka euskal herritar Auzitegi Nazionaleko epaileen aurretik pasatu izana lehen mailako gertakizuna delako gure historian.
    - Horretarako Iñigo Iruin eta Amaia Izko abokatuak izanen ditugu gure artean. Lehen eskutik bizi izan dituzte urte luzez auzi politikoak. Auzi hauen jatorri zein helburuak protagonista zuzenen eskutik entzun ahal izatea hobe ulertzen lagun diezaguke.
    - Hitzordua: apirilaren 9an, larunbatarekin, 11:00ean Iruñeko Condestable Jauregian.
  - ✦ *“#aztnugal1000kaurpegi”* aurpegi ekimena aurkeztu nahi dizuegu ere. Auzi politikoen eta torturaren kontrako elkartasun ekimena. Argazkiak igortzeko eskakizuna egiten diogu euskal jendarteari. Auzi politikoak eta tortura betirako amaitu daitezten aldarri gisa.
- Horretaz gain, maiatzaren 17tik aurrera epaituak izango diren Roxika Iriarte, Eneko Compains eta Joxe Aldasorekin batera, hurrengo egunotan Nafarroako bi instituzio garrantzitsuenekin harremanak egiten ditugu:
  - ✦ Apirilaren 6ean Parlamentuko lan saio batean egonen gara gure egoera esposatuz.
  - ✦ Apirilaren 7an Arartekoarekin egiten dugu bilkura.
- Epaiketa politikoak eten behar dira. Salbuespen legedia bertan behera geratu dadila. Salbuespen auzitegiek ez dute zentzurik XXI. mendean. Estatuaren biolentzia behingogatik amaitu dadila. Euskal herrian LIBRE bizi nahi dugu.